

Manuel Iraola Goenaga

*Bidania-Goiatz,
Gipuzkoa (1926)*

Aurkibidea

Biografia



Bidanian jaioa, Eztiola baserrian. Zortzi anai-arrebako sendian hazi zen. 13 urte ingururekin ondoko baserri batera joan zen morroi. Lanari dagokionez, lehenbizi txatar-biltzaile ibili zen, gero obratan lan egin zuen, eta azkenean 23 urte egin zituen Aldundirako "kaminero" lanetan. Bidaniko euskara darabil.

Zintak

BID-008

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Data:** 2008-07-24
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Reguero, Urtzi

Pasarteak

1. Eztioletxe etxea

- **Erref:** BID-008/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:02:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Eztioletxe etxea Bidaniko iturriaren ondoan zegoen etxe txiki bat zen. Baina bera jaiotakoa Eztiola baserria da.

Transkripzioa

-Bidanin bai baizan Eztiolaetxe.
-Emaztea: Eztiola etxe bai.
-Guk ezaututakua. Zuek e...
-Emaztea: Ez hok ez...
-Herriko iturri bat hor bazan, badao, ba?
-Bai iturriya.
-Ba al dakizue? Oain granja dago, ta oain e lehengo pareta zaharrak badare, hor etxe txiki bat zan garai baten: Eztiolaetxe. Nik ezautu nun familiya, Eusebio, nere kintakua zan, bakarra zan ta geroztik alde egin zuen... ni gaztia... umek, umek giñala alde ein zuen. Eusebio. Eztiolaetxe bazan, baiño gu Eztiola, bitako bizitza, Eztiola. Oain, beste horren izena, oaindik nonbratu be egongo da, ez dao bukatuta ta.
-Emaztea: Guk bai nahi Eztiola.
-Aaaaa nahi, nahi zuek ametsetan, oaindikan ezta...

2. Basolana: egurra txikitu eta lantegietara eraman

- **Erref:** BID-008/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Zortzi anai-arreba ziren. Umetatik lan egin behar izan zuen baserrian. Labrantzako lanak egin behar izaten zituzten. Ganadua ere bazuten. Gerra denboran, 12 urte ingururekin ondoko baserri batera joan zen morroi. Basoak; lehen pinu gutxi zegoen eta pagadi asko. Egurra txikitu eta lantegietara eramaten zuten.</p>

Transkripzioa

- Zenbat anai-arreba ziñaten.
- E?
- Anai-arrebak, zenbat?
- Gu zortzi bai.
- Eta zu gaztena, erdikoa, zaharrena...?
- Ni ezkerro die bi, azken hirugarrena ni [...], ni ezkerro beste bi.
- Ze hasi ziñaten oso gaztetan lanian ya baserrin?
- Bai! Urte asko. Bai basuan ta... bai, bai, bai. Urte asko baserrin. Urtek e... puff... urtek, urtek esateko ba... Hoita bost urte baserrin.
- Ta ze, ze lan egiten zenuen?
- Labrantza lana, bason, belazen, lurrian ganadukin...
- Ta ze animali edukitzen zenuen?
- Ganadua, behiyak eta...
- Esnetako?
- Bitaa, bitako. Total esnetara ez giñan erori sekula ia. Ba... regular. Regular. Ordun, idik eta danak. Basoa atea ta mendin lanen.
- Ta ze egiten zenuen mendin?
- Hemen garai baten... jesus... oaiñ dana piñuba ikusten da. Dana pagua zan. Piñurik ez zan hemen, guk ez genun piñuik ezagutu. Beno, ezautu giñun, baiña gutxi, milagro. Dana pagaria zan, pagua ta haritza ta gaztaiña. Hau dana pagariya zan eta gu behin gerra ondorenen ya hamar hamabi urte hamahiru hamalau, ni hamahiru urteko morroi atera nintzen. Baserri hortaxe, hamahiru urtekin. Ta hamalaukin etxea jun ta lau anayak basoa. Bota, arbola txikitu eta ganadukin karretera atea puskautakok. Ordun fabrika asko zan, egurrakin sua eitten zuen, ikatza ´re bai. Elektrikua ez. Egurra, egur asko saltzen zan fabrikata. Ez dakit, tonelako honenbeste, txikituta atea... hola jun zan. Gero bason ibili nintzen. Lau lagun, bost lagun. Danok jorialen.

3. Soroko jeneroa

- **Erref:** BID-008/004
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Soroan garia, artoa, arbia... denetarik zuten. Etixerako lain hartzen zuten. Babarruna asko hartzen zen eta batzuetan azokan saltzen zuten babarruna arrautza eta bestelakoekin batera.

Transkripzioa

-Eta soroa edukiko zenuten?

-Bai, bai, beste anayak ta aittak ta haiek danak.
-Ta ze edukitzen zenuen?
-Gariya ta artua ta arbiya ta bai... labrantza dana.
-Ta gero ze egiten zenuen, Tolosako ferian saldu, beste etxetan...?
-Perira saltzeko, ba artoa... ez ganadua... etxen kotsumitzen zan. Etxeko gauzia ya... babarruna asko eukitakuan saltzen zan, arrautzak, artua, oilaskok hazi, oilok hazi, artuakin haik hazi, haik saldu, babarruna, hau saldu. Etxen asko behar zan urte guztin ta erosi batez ahal zala. Ahal zala...

4. Eskolan gaztelaniaz; errespetua nagusiei

- **Erref:** BID-008/005
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:09:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

<p>Sei-zazpi urterekin hasi zen eskolan eta 11 urtera arte ibili zen, gerra hasi zen arte. Gauza gutxi ikasi zuten eskolan. Gerraostean Fidalgo abizeneko irakasle kanpotarra zuten. Dena gaztelaniaz ikasten zuten, baina lanak izaten zituzten ulertzen, ez zekiten gaztelaniaz eta. Zigorak ere izaten zituzten. Lehen errespetu handia zitzaien irakasleei, gurasoei eta apaizari.</p>

Transkripzioa

-Eskola joaten zinaten?

-Hamaika urtekin... zazpi bat urtekin, zazpi seikin hasi giñen ta hamaika urtekin erretira. Gerra hasi zanen hamar urte, hamar urtekin erretiratu nitzan handikan.

-Ze ikasten zenuen?

-Ze ikasi? Oooo... Gutxi gutxi gutxi... [...] ikusten da... berrogei bat mutil gutxiñeko, hasi sei urtetikan ta 12 urte arte, maisu batek ez [dao danak hazteik]. Gregorio bizi izan bazan esango zizuen. Hura partikularren ibili zan ta gero Tolosaa ta abar, baiño hor ez zeon ikasteik. Eta gerra ondorenen, Fidalgo apellidua zun maisua zan —ez zat ahazten— kastellanua, euskeraz ez zun hitz eitten uzten ya, ta erderaz ez genekiun! Ta leziyua "De aquí a aquí, ta, ta, tantas filas" esanez. Hura buruz hari ematen, Jesus, ze esate gendun ez genion ta arrastoik, ezin sartu ez, alperrik, alperrik.

-Eta euskeraz egin ezkero eskolan?

-Euskeraz ez ziguen uzten. Ahal zan gutxiña.

-Eta zigortu edo?

-Ja! "Pon la mano! Redoble", hau miñakin "Redoble", hemen hezurran "Redoble, venga" ta alde eitten hasten baziñan hura altxa ta etorri ta benga! Egurra! Oi oi oi. Egur haundiya. Oain eskola gustora juten die, seiñale due e. Oaingo umiak hor ta hemen daren bezela umek ez, e! Isilik e! Eeeee! Et et et, isilik e! [...]kiñ e ixilik e. Hok e, maldiziyua igual berak. Et et et, hola ez, e! Hori ez. Hori ez! Apaiza baldin bazan, "Ave Maria purisima!" hark "Sin pecado concebida" kontestatuko zun ta aurrera. Kontestatzen? Zeni? Ez ez ez, iñori ez! Aittari edo amari enkargua, ta etxian paliza, gutxi ez, e! Maisuk, apaizak berdin.

5. Eskolatik "piper" egitearren jasotako zigorra

- **Erref:** BID-008/007
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:16:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

<p>Batzuetan, eskolara joan beharrean, txori-habi bila ibiltzen ziren auzokoa eta biak. Konfiantza hartu eta sarritan hasi ziren ihes egiten. Azkenean, elizpean pilotan ari zirela Joxe Beltza mikeletea etorri zitzaien bila. Berak ihes egitea lortu zuen; baina, hurrengo egunean, irakaslea etxera etorri zitzaion bila. Lehenbizi etxean eta gero eskolan zigor gogorra jaso zuen.</p>

Transkripzioa

Ikasi? Ikasi? Juteko gogoik ez! Ni ta beste bizitzakua, Antonio, kintok, kintokok giñan. Hala, eskolan ezin ba ta txori habik bakizu nola [...] dian oaiñ, txori habin billa ibiltzen giñen, eskola jun gabe. Etxe aurreko hortan artua zan ta loratan, etxetik kalea ez zan ikusten, sukaldetik, behintzat. Pareta hor, ta hortikan etorri ta hortikan gora piñudiya alde eginda, han gora. Piñudin ze egongo dek? Lau bost bat egun eskola jun gabe, hor ibilli, besterik ez, hor ibilli. Baiño hasi giñen konfiantza hartzen ta pelota etorri

bik, eskola jun gabe pelotan ta mikeletia, Joxe Beltza esaten ziyen, hemen, zeran, egoten zian mikeletek, caja de ahorrosen ta hor “Kataleju” Adrian “Kataleju” bizi da, hor bizi da beste etxe baten “Kataleju” esate diena gaur, Adrianenea etxe horrek zun izena, oraiñ hala izango dan ez dakit, hor e bai Mikeletek. Joxe Beltza hori hareago, Ostalatzeko Joxe bestia, Ipintzakua re. Pelotan ari giñala, hor etortze zaizkigu abixu eman zizken, atzetik sartu elizan azpiko frontoi horta ta eraso iyo fabrika korrika, nik alde egin niyoen ta Anttonio harrapatu zuen, moja etxetik, hor harrapatu zuen. Nik, alde egin niyen nik, ez niñuen harrapatu. Hura eraman zuen maisuenea ta maisuk pasaria eman, esan dit eman zizkiola edarrak! Orain [...] bakarrik, ba ni ez ba, hor baso hortan gordetze nintzen ta hor [...]. Etxen lehen txitak egoten zian ba txabolan? Harkaitz hartan, orain ez dago, baiño han belar biltzen han aittona, aitta ta ni´re laguntzen belarra biltzen ta [...] txintxo. Maisua, Fidalgo hori, andriak euskeraz eitten zun pixka bat, maistra zan, goiko etxen bizi zian haik. Hala, Beteluko Juan Migel ta, oaiñ ez dakit, hor haruzkalden, zeok Betelu, hangokin ondo ibiltzen zien, hara jun ta handik esnia ekarri ta eitten zittuen ba, hor bidia ta banoa ta ikusi dittut nik Pepita, neska zaharrena, ta bestia ze izen zun neskak? Bi neskak, ahaztu zat. Gure etxe aldea, haruzkaldetikan maisua ta maistra ta aiba! Parea etorri zan ta kieto haik ta aittonai erderaz, bate ez zekin, baiña enteditu zien haik, maistrak euskeraz asko ez baiña benga ez nintzela eskola juten. Ta han, larren, ni. Beno, etxera etorri nintzanen [...] batzuk zizkien. Hurrungo goizen amak eskolaa, hamar urte, bederatzi. Ta eskola pareta Parisko etxe pareta [...], ikusi nun nik, bandera atea zun maisu horrek, bandera ateratzen zan, bandera española. Ta maisua etorri zan bea ´re bidea, ta hor kontsultatu zuen ta juteko, juteko eskola juteko. Jarri nitzen ni eserita nere tokin hura etorri zanen hartu nittunak! Egurakin e hartu nittunak! Gure eskolia hura izan zan, gure eskola.

6. Ikasitako apurra gau-eskolan partikular ikasitakoa

- **Erref:** BID-008/008
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:18:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Dotrina ondo ikasi zuen, baina bestela eskolan gauza gutxi. Dotrina ikasi beharrean beste zenbait gauza ikasi balitu baliagarriagoak izango zitzaizkiola uste du. Biderkatzeko taula ondo ikasi zuen. 18 urterekin gau-eskolan ibili ziren partikular medikuaren emaztearekin. Irakasle ona zen.</p>

Transkripzioa

Nik esan izandu det, dotriña, en cambio, ikasi nun e! Oraziyok, eliza kontuk ikasi nittun e, hoik bai! Baiño esan izandu det, dana ez dao esateik, ez due ondo hartuko ta, nik dotriña ikasi nun hain mehe... nahiago nuke ikasi banu metro koadro baten zenbat azulejo tantos metros ikasi banu! Ez nun ikixi hori! Bate serbittu ez zian eskola ikasi nun: dotriña. El único tabla, gaur´e baakit nik tabla, tabla bai e! Tabla dakit ahazte ez dana. Baiño eskolan metro koadro baten hainbeste ladrillu, ez gendun ikixi. Lekturak itten genduzen, lekturak, gero´re banun nik liburua, geografía, aritmetika ta zera zittun gehio´re harek historia sagrada´re bai, ta hura zan. Leitu eitten

gendun, baiño ez ordean, ez ordean... "Pan", ez genekiun "pan" hura zer zani. Ta gure eskola ezin ezin, ta gu, ni bezela bestek, danak, ez gendun ikasi. Guk eskola ikasi gendun, 18 urte, gau eskolaa. Gauetan maestra, maestra ona zan, medikun andria, oain seroretzia, han bizi zian medikua bere andriakin, andria maestra zan. Ez zun eskola ematen e, baiño guri bai, partikular, horrela bai. "Harek ze esan nahi du?", "Hori hola ta hola da ta hori hola ta hola. Hori hola ta hola da ta hori hola ta hola". Han ikesi gendun gero. Edadia´re bai, e? 18 urte, 17kin hasita behintzat. 3 urtetan behintzat ibilli ginen, hantxe eskola ikasi gendun, harek esplikatuta, hantxe jantzi giñan piskat. Gaiñentzen gure eskola horixe zan, ta Gregorio hura´re Tolosaa partikular. Baiño hua ere, beira zu, ez zan beti juten e. Frontoien ta ... bazitun harek e... danak tankeran pixkat.

7. Umetako jolasak: mutilak pilotan eta neskak "kurkuluxetan"

- **Erref:** BID-008/009
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:19:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Pilotan aritzen ziren elizpean, baina bestelako jolas gutxi egiten zuten. Neskek "kurkuluxekin" (tortolosak) jolasten zuten.

Transkripzioa

-Ta pelotaz aparte, zertan jolasten ziñaten?
-Guk pelotan batez. Hor elizan azpiko arkupetan zeuden ba... frontoie ta bate ez da hoi.
-Baiño aparte ze beste jolas zeneukaten?
-Beste jolasa? Batez hemen.
-Pelotan bakarrik jolasten ziñaten? Ta kanikekin?
-Neskak bai. Kurkuluxa, arkume hanka hezurreko harekin. Bai kurkuluxa. Bota ta a pune ta a karne eta hua bota ta buelta eman ez eta... baiño guk ez mutillak, guk ez gendun. Guk hemen ez gendun jostailurik batez, batez. Miseri bat. Batez, batez.

8. Bidaniko festak gaur baino ilusio handiagoz

- **Erref:** BID-008/011
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:20:25. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Lehen giro hobe egoten zen Bidaniko festetan, ilusioz bizi zutelako. Urtean behin bakarrik izaten zen soina eta horren zain egoten ziren. Jaietako jatekoa: garbantzia eta arroz-esnea.

Transkripzioa

-Ta Bidaniko festak zer moduzkoak izaten ziren?

-Festak? Festak gaur baiño zeagok, ambiente haundigok. Gaur... baakizu, lehen urtian behin, soiñua´re urtian behin, ta soiñuba ekartze zan. Jaietako partikular ta etzan kotxerik e, ezta salidaik´e ez. Nola jun ber zenun? Oiñez. Ta festak bazun bere zera bat, herriko festak´e bazun ambiente bat. Kanpoko osaba-izobak etorri ta... Postria arroz con leche, urte guztin hua, garbantzua, ta hori izaten zan otorduan, oillua... Festak zun holako zera bat, gaiñentzen... Gaur ze jan ez dakiu, ze edan ez dakiu, nora jun ez dakizu. Gaur, gaur nik ez det billatzen ilusiyoik.

9. Inguruetako festa eta erromeriak

- **Erref:** BID-008/013
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:25:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Ez ziren asko irteten herritik. Herriko batek kamioia ekarri zuenean Beizamara joaten ziren harekin, ordainduta. Urkizuko festetara ere joaten ziren; hara Beizamara baino jende alaiagaoa joaten omen zen. Inguruetan erromeria garrantzitsuena Iturriozkoa zen. Zelatunera (Herniora) ere joaten ziren irailean. Inguruetako beste festa batzuk.</p>

Transkripzioa

-Hementxe danak, hemendik Beizamaa oiñez. Zaharberrik kamiona bazun ta hua hasi zan kamionakin eman ta ekarri itten, baiño diru truke ta dirua kontuz! Dirua kontuz, hori falta danak. Ta, gaiñentzen, festak gu ibilitakok Urkizun San Pedrotan, Beizaman baiño hobia. Urkizua jendia [...] juten zan Beizama baiño ta hemen ta han zan festaik jende ambiente handiyena: Itturrioz. Nun dan baakizue? Itturrioz. Hor, Aia aldeko jende hori ta abar jende... dantzaako-ta jende haundiya, Iturriotz. Gaiñentzen, herri txiki hootako festak? Ttunttuna jo ta tanborra ta... motx motx, oso motx.

-Eta Zelatunera ez zineten joaten?

-Bai, Zelatunen lau jai inportantek. Ez dakit lehenbizikua...

-Emaztea: Setienbren.

-Bai baiño...

-Emaztea: Ta agostun´e bai.

-Beizamakok izan e, Beizamakua San Bartolometan duela jaia urten behin, herrik... jaiak zittuen herrik. Beizamakok soiñu jotzaille bat edo bi beraien kontura eamango zittuen, herriko jendia preparatuta jungo zan dana, ahal zuenak, igande baten, ta hurrungo eguna, hurrungo igandia nik ez dakit zein ta Albizturkua ta hemengua´re bai, ta Goiazkua bestia. Lau herri, lau jai. Illuntzen erretira danak handikan ta... jende asko bai, ze egualdi dan, txarrakin´e kuidau.

10. Gerra-osteko egoera; garia eta artoa entregatu beharra

- **Erref:** BID-008/014

- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra-ondorenean ogirik ez zegoen. Baserrian beti izaten zen jateko gehiago, baina gerra-osteko egoera nahiko txarra zen, garia eta artoa entregatu egin behar izaten ziren eta. Kartila batean markatzen zen zenbat kantitate ehotzeko baimena zeukaten eta hortik atzerakoa estraperloan eho behar izaten zuten. Errazionamenduko opilak. Estraperloan ekarritako zaku-irinak 1.000 pezeta balio zituen eta basoan lau zuhaitz handi botatzea 25 pezeta ordaintzen zen.</p>

Transkripzioa

-Eta ze egoera egondu zan gerra zibil garaien Bidanin?
 -Gerra garaien? Nola?
 -Ze egoera egon zen?
 -Egoera? Gerra ondorenen ogiik´e ez, ogiik´e ez. Basarrin beti sortu zan, baakizu, behiyak eta esnia eta abar, patata pixkat, dana. Baiña ogia hartutakok, nik ezagututakok [ondo ezautu gendun] ondorengua. Gerra bukau zanen hamahiru urte nittun ta, hamarrekin hasi ta hamahirukin bukau zan. Ta etorri zan, labrantza [...] honenbeste metro quadro gariya einda ta herriko gizonak [...] zuen, bai, honenbeste kilo gari. Ta ze famili da? Ta lau ogi edo bost edo... Beno hoi [...] kontuk in ta horiek etxen nahiko dizkiye 300, 400. Ba, 600 hor herrira, garik, entrega. Ta [estaduko] preziyua, kanpoa danak garik. Artoa´re tanto herrira ta geatzen zaizkitzu... errotaa. Esan det mila kilo tasatu ta 600 entregatu eiten [dituzu], kendu iten dizkitzue ta 400 zuretzako. Kartilla bat ematen dizue 400 kilo gariyantzako. Ta artua gutxiyo [...] beste berrehun bostehun, kartilla. Errotaiyak zenbat [...]go dittun, menos, menos, baijua, menos, bukatu da, bete da, gehiyo dakazu ta hori iyotzeko ordena ez dauka errotaiyak, estraperlua. Ta hark itten zun ta erdiya kentze zizun. Ta halare konformatu in ber, konforme, ez daukek nun iyoiik eta, ta ogiya beltza, pastel horren kolorekua, opillak. Baiño ez zuen zakurrak jaten hua e! Hemengua danak eamango zuen. Etortzen zan iriñakin, hemen panaderok itten zittun iriñ harekin ogiik ez zeon itteik, opillak personako bana o biña o ez dakit ze itten zittuen. Hua jaso in ber ziñuzen, e. Ta preziyua ez dakit, [...preziyon] ta... Ogiya jateik ez. Basarrin esaten dana, nola-hala artua ta estraperlua gehixeo ta han´e errotaiyak asko kendu... Ba! Konforme. Beti basarriñ talua ta abar ta... basarriñ pasable, baiño kuidau! Diruik ez, ez zeon ta hartzeik´e ez zeon. Zaku iriña, gure etxen, gariyan iriña 80 kilo milla pezta. Haik estraperlon etorritakuak. Altzoko Pello Txiki zan hor negoziyon ibiltze zan bat, gizona, Pello Txiki, hark ekartzen zun milla peztan basuan lau tronko arbolak, lau haundi metro kubiko bat eitteko bost duron, lau partetan moztu bost duron ta milla pezta zaku iriña. Zenbat lan in ber dun hura kubritzeko ta hori ekartze bazizun. Lana... ezin, ezin, ezin diruik atea. Hoi paatu ta sobratu ezin ein, baiño lana in ber. Bestalde batez.

11. Bidaniko eliza Muñoak egina

- **Erref:** BID-008/019
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:41:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Bidaniko eliza Muñtilda;oa izeneko gizon batek egin omen zuen bere poltsikotik ordainduta. Lehengo eliza zaharra hilerri inguruan omen zegoen. Miserikordia ere bazegoen Bidanian eta Muñtilda;oa jarri omen zituen bertan mojak, gaixoak zaintzeko. Muñtilda;oatarrak nazionalistak ziren eta gerra-garaian alde egin zuten herritik.</p>

Transkripzioa

Hemen Muñoan historiya kontatu al dik iñork? Bidaniko elizana, ez al dizue kontatu? Eliza hori gizon batek bere kontura ein zun e! Bere boltsikutik! Muñoa. Hor eliza zaharra, han kanposantua badago, ba? Hemen, moja, apaiz etxiak ikusten dituzu, gero Bengoetxe... zuek ikuste dezue han, han etxe berriya, illun bat badago ba, etxe berri-berriya inda oaiñ? Belazia oain ebaki berriya badago ba oaiñ? Kanposantua han dago, lehengua, bueno, kanposantua han dao... eliza lehengua han dago, eliza eta palaziyua, bakizue zein da Lizasoaiñ baakizue...? Hua, Lizasoaiñ, aberatsa eta Muñoa hori hemen ez dakit nun biziko zan, Amerikan partida haundiya in emen zun-ta. Ta han eliza berriya ein nahi zuen eta han Muñoa horri ez ondo iruditzen han ta Lizasoaiñek begiya hartu ta baietz, lehengo izaera ta lehengo zerara, hemen beste honek ezetz. Auzitan bukatu zuen ta Muñoa horrek irabazi zun tokiya hua´re ez zala hua´re ona, baiña hemen ein zun eliza, oaiñ ein du eliza hau, betelanak ein ta zera haundik. Hori, Muñoak — nik ezautu nun— arkitektua beria berekin ta dana konpletua zan. Moja etxek... Miserikordi etxia Bidanin´e badao e! Hori ez dizue iñok esango! Moja etxia baakizue zein dan? Baakizu? Hori Miserikordi etxia da, e! Ta hor mojak jarri zittun Muñoak jornalakin gaixo zerenai gaua pasatzeko mojak, basarritan gaixo bat badao —gizon edatetu bat edo gaztia igual— gaua han pasatzeko ta laguntzeko jarri zittun Muñoak hor mojak. Zenbat ez dakit. Ta zahar etxia hori.

12. Muñoatarren inguruko kontuak

- **Erref:** BID-008/020
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:41:45. **Bukatu:** 00:43:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Muñoatarren inguruko kontuak. Nazionalistak ziren eta gerra denboran herritik alde egin zuten semeek, baina aita harrapatu egin zuten. Inguruko baserri gehienetan maizterrak ziren eta Muñoa hori zen etxejabea. Gerra denboran harrapatu zutenean, balore guztiak kendu zizkioten eta geroago enkantean jarri. Muñoatarrek euren sepultura dute elizan.

Transkripzioa

-Gero, nazionalista auskalo ze maillatan. Bi mutil zien semek haenak. Gu pelotan, mutill haundik ikuste giñuzen ziala ta gerra momentu hartan alde in zuen haik. Ta aitta harrapau zuen, zaharra, baiño hua harrapatu zuen, Muñoa. Ta hari, gu haien maizterrak giñen ta... horrek etxe asko, berrogeita hamar maizter igual, basarrik, hemen ta, nun ez! Gaintzan ta Errezilen ta... nun ez harek! Haziendak danak kendu zizkion. Kartzeleatu in zuen ta [ez dakit zenbat] diru kendu ziyen Muñoa horri, ez dakit. Ta haziendak dana kendu ziyon, balorek. Ta handikan zenbat urtea? Ba handikan 20 urtera iya... bai 20 urte gertu izango zien, danak subastatu zittun haziendak edo gobernuak edo... haziendak. Ta danak salduta han geldittu zien. Haik Frantziñ, aitta´re... Eliza hortan, bere andrian sepultura bada hor suelon han sartuba ta bea´re, hezurak hara ekarri ta han sartu die, elizan barrun. Sartu ta ezkerretaa. Altaretxe bat [e badao], bere sepultura [bezela da], Muñoa horrek beak inda, beak beetzako zeatutakua. Ta bi seme hoik Agirre famosua bada ba, presidentia garai baten izandakua, Agirre, haren alabakin, bestia zeifienakin ezkontutakok.

13. Muñoatarrak etxejabe handiak

- **Erref:** BID-008/022
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:45:20. **Bukatu:** 00:46:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Muñoak etxe ugari zituen eta leku askotan zituen maizterrak. Haien dirua nondik etorritakoa izan zitekeen ulertzeko adibidea jartzen du.

Transkripzioa

-Muñoak maizterrak zeuzkan, ez, Muñoak?
-Emaztea: Muñoak bai, maizterrak, gu´re hala giñen ta...
-Bai! Muñoak? Berrogei etxe igual maizter, gehio igual.
-Emaztea: Zizurkillen e bazun etxia harek.
-Nun ez harek! Amerikanuak baiño zera haundigua emen zun ta... Horrek terrenotan honen andriaandik lehendikan [...] herrin bat formatuta ta handikan diru asko ibilitako [...]. Ta nik aitzera badet diru asko indako gizon hoik nolaz eindako diruak ote dittuen: erreka, gaiñez eitten du ba, ebi asko indakon ta zikiña ura. Diru hori´re zikiñetikan eindakua izeten ote dan. Ur asko errekan, ebi asko einda, gaiñezka, ta zikiña. Ur garbitik negozio txikigua, gizonak´e diru hori [...] dabillen garaien eindako diruk izeten diala aitzera hala dittut nik.

14. Herriko tabernak; basora lanera

- **Erref:** BID-008/023
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:46:55. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Lehen gaur egun baino taberna gehiago zegoen herrian. Dirurik ez zegoen garai batean. Gaztetan basoan lan eginda 5 duro irabazten zituen eguneko eta argitik argira lan egiten zuten.

Transkripzioa

-Eta ze giro egoten zen Bidaniko tabernatan?
 -Ba tabernak´e oain baiño gehiyo hortxe egon zan bat, Xapatero horiek, Pakitak eta taberna.
 - Emazteak: Herriko taberna.
 - Berena!
 - Emaztea: A! Berena?
 - [...] taberna, oain´e hor egongo da mostradora. Pakitak bere taberna oraiñ´e, hura kendu? Keba! Batez! Bi, herrikua hiru, Toki Alai, lau taberna kontinua. Ta gero horik itxi in zien ta Zaldibarren´e irikita egon zan, urte asko ez zittun euki. Ez zan, ez zan. Salida haundik ez zan hemendik eta diruik ez zan. Mendira basora jun ta etxea etorri gabe ibillitakua naiz ni. Hantxe nagusikin bost sei mutil egunian bost duro, argitik argira e! Ordua, zenbat ordu? Egunian bost duron ibillitakua naiz e! Nora? Fabrikan? Ez zan hemendikan iñor moitzen, bazian baiño gutxi. Ez zala diruik, ez zala fabrikan jornalik, ez zala, ez zeola fabrikan jornalik, diruik ez zeola kontu hori, ta horrea fabrika ez [...] ez iñora. Basora, ta ni ez nitzan atea, Irati mendia-ta ni ez nitzan atea, ni hemen ibilli nintzen, Irati mendia jun zian asko.

15. Erbitara elurretan

- **Erref:** BID-008/027
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:52:40. **Bukatu:** 00:57:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Erbi asko zen inguruetan eta joaten ziren ehizara, erbitara, elurra zegoenean. Azeriak gehitu zirenean gutxitu ziren erbiak. Azeriak oso usaimen ona omen du. Elurretako arrastoak. Azeriak zepoan harrapatzen zituzten. Harrapatuta izan zuen beste pitzia baten (iputatxa) inguruko kontuak.

Transkripzioa

-Eta ehizara joaten zineten, eskopeta hartuta?
 -Bai, bai... ibiltzen giñen, ibiltzen giñen elurra eitten zunen, ez giñen [...] sekula. Erbitan. Hemen erbi asko zan, asko, asko erbiya hemen. Erbitan, Jesus! Han Erniyon, laiñua dao, hortik, hortik gora zenbat bider elurretan. Bota´re, bota geñizkin batzuk, bai, bastante botatzen gendun. Urte baten zazpitaiño rekor haundiya in genun hua e! Bai. Hiru lagunek. Geo azariya ugaldutzen ari zan ta ugaltu zan ta horrek galdu zun e. Zuk larriya botagatik, gatxapua esaten zaio txikiyai, gatxapua. Txikik [nundik], ze in zuen haik? Ta haik linpio. Azayak ufatu haundiya du, luzia, oillagor zakurrak´e hoge metro, oillagorra usaitzen du ta oaindik haundigua du azaiyak. Ta

horrek gauian ikusten bai bestek e, gauen harrapatzen ditu, ta haundiya´re bai harrapatu ezkeo horrek. Elurretan erbik salto handixegua du, holakoxe bat gehiyo, mahai hau beten erbik eta bai bestia´re gertu, elurretan. Arrastok, arrastok ikusita gare ondo. Ondo ikusita gare. Baiño erbiya... Ta aitzera det galtze emen dula igual erbik ese itten du ta bestiak atajuz han harrapatze emen dula. Azayak... azayak asko bota ditteu guk. Bota edo... zepon ta harrapatu nik. Nik zepon... prohibido? Bai, lizne jende hoi ta dana, asko harrapatuta ta kaiyolan eukita, asko. Ni denunziatu ezkeo... uf! Zepokin liznek. Liznia banun, hurak ze izen zun ez dakit, txikiya zan, holaxe, txiki bat, beltxa, bel-beltxa, ipurtatxa, ipurteatxa eo holako izen bat. Hor amerikanok esan zien "Bai, iputatxa badek eta holakon bat izango huan". Hua kaiyolan jarrita... kaletikan harek "iiii" ta aittuko zendun e! [Ez non zirikatzen], kaletikan aittuko zuela. geo bildurtuta neoni, "aittu ingo diye" ta. Etaatzen zun txistu bat kaiola arrimatzen baziñen...! Jana ematen niyon ta saria ondo ixte ez zala izango zan edo... —egun batetik bestera oillasko [hezurrak-eta] jaten zittun harek e! Bai!— ta egun baten falta. Han saria nunbait pixkat obligatu ta harek alde in zien, alde in zien. Pena haundia harek eman zian! Bi liznek, arra-emek, harrapatuta kaiyolan batea eukitakok dittut. Ta gure etxen mutillak kejatut in zian gauen, haik burrukan, kanpotik katu hotsa "miau" ta "mii" ta "mau". Ume bat in in zun bertan, bai, denboaik gabe... in zun.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com